eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, "UPV/EHUren ARABAKO CAMPUSEKO ERAIKINETAN SUTEEN AURKA BABESTEKO DIREN EKIPO ETA SISTEMEN MANTENTZE LANAK" KONTRATATZEKO

1 KONTRATUAREN XEDEA
2 MANTENDU BEHARREKO INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUA
3 MANTENTZE-LANAK
3.1 PREBENTZIOZKO MANTENTZE LANAK
3.1.1 Modalitateak
3.1.1.1 Ohiko mantentze lanak
3.1.1.2 Birjarpenak
3.1.1.3 Nahitaezko aldizkako ikuskapenak
3.1.1.4 Legeztatzeak
3.2 MANTENTZE ZUZENTZAILEA
3.2.1 Modalitateak
3.2.1.1 Ordezkapenak, konponketak
3.2.1.2 Ordezkapenak legezko iraungipenagatik
3.2.1.3 Programazio aldaketak
3.3 MANTENTZE LAN EZOHIKOAK
3.4 Bermea
4 HELBURUAK
4.1 Orokorrak
4.2 Kalitateari dagozkionak
5 MANTENTZE ENPRESAREN BETEBEHARRAK
5.1 Betebehar tekniko eta legalak
5.2 Betebehar dokumentalak
5.2.1 Prestazioaren hasieran
5.2.2 Kasuan kasuko aldizkakotasunarekin
5.2.3 Hiru hilean behin
5.2.4 Urtean behin
5.3 Prestakuntza betebeharrak
5.4 Bestelako betebeharrak
6 MANTENTZE ENPRESAREN ETA UNIBERTSITATEAREN ARTEKO HARREMANAK
7 KONTRATISTARI EMAN BEHARREKO LAGUNTZA ZERBITZUA ESKAINTZEKO
8 UNIBERTSITATEAREN ERRESERBAK
9 ERANSKINAK

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL "MANTENIMIENTO DE LOS EQUIPOS Y SISTEMAS DE PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS EXISTENTES EN LOS EDIFICIOS DEL CAMPUS DE ÁLAVA DE LA UPV/EHU"

1 OBJETO DEL CONTRATO
2 INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO A MANTENER
3 EL MANTENIMIENTO
3.1 MANTENIMIENTO PREVENTIVO
3.1.1 Modalidades
3.1.1.1 Mantenimiento Ordinario
3.1.1.2 Reposiciones
3.1.1.3 Inspecciones Periódicas Obligatorias
3.1.1.4 Legalizaciones
3.2 MANTENIMIENTO CORRECTIVO
3.2.1 Modalidades
3.2.1.1 Sustituciones, reparaciones
3.2.1.2 Sustituciones por caducidad legal
3.2.1.3 Cambios de programación
3.3 MANTENIMIENTO EXTRAORDINARIO
3.4 Garantía
4 OBJETIVOS
4.1 Generales
4.2 De Calidad
5 OBLIGACIONES DE LA EMPRESA MANTENEDORA
5.1 Obligaciones técnico-legales
5.2 Obligaciones documentales
5.2.1 Al inicio de la prestación
5.2.2 Con la periodicidad correspondiente
5.2.3 Trimestralmente
5.2.4 Anualmente
5.3 Obligaciones formativas
5.4 Otras obligaciones
6 RELACIONES ENTRE LA EMPRESA MANTENEDORA Y LA UNIVERSIDAD
7 APOYO AL CONTRATISTA EN LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO
8 RESERVAS DE LA UNIVERSIDAD
9 ANEXOS

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da "UPV/EHUren Arabako Campuseko eraikinetan suteetatik babesteko diren ekipoak eta sistemak mantentzea", hauen asegurua, funtzionamendu zuzena eta etengabea ziurtatzeko, bai eta suteen aurkako babes eta segurtasun instalazioei buruz indarrean dagoen legeria betetzen dela ziurtatzea ere.

Plegu honen II. eranskinean adierazten da Campuseko ikastegien kokapena eta instalazioen elementuen deskribapena, orientazio gisa.

2.- MANTENDU BEHAR DIREN INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUA

Mantentze lan honek barne ditu suteak detektatzeko, alarma jotzeko eta itzaltzeko instalazioak, hala nola:

- Suteak atzemateko sistema eta alarma automatiko eta eskuzkoak.
- Kanpoko hidranteak, su itzalgailuak, sute aho hornituak (SUHak).
- Suteen aurkako ur hornidurako sistemak, ur tangak, ponpaketa taldeak, barne izanik berauek osatzen dituzten elementu guztiak.
- Zutabe lehorrak eta sua itzaltzeko sistema finkoak.
- Karbono monoxidoa detektatzeko sistema automatikoak.
- Kea eta beroa kontrolatzeko sistemak
- Seinale lumineszente bidezko sistemak.
- Suaren aurkako ateak eta ebakuazio ateak
- Kea aireztatzeko/ateratzeko sistema behartuak
- Exutorioak eta suebakiko uhateak.

Era berean, mantentze lan honetan ere sartzen dira campuseko kontrol zentroko PC ordenagailuan izan beharreko programazioak eta planoak. Ordenagailuak kudeaketa grafikorako programa bat (TG Notifier) du, barne dituena ikastegi guztien planoak.

Larrialdiko argiak ez dira kontratu honen xede.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato será el "Mantenimiento de los equipos y sistemas de protección contra incendios existentes en los edificios del Campus de Álava de la UPV/EHU", a fin de asegurar su seguro, correcto y continuo funcionamiento, así como el cumplimiento de la legislación vigente sobre instalaciones de protección y seguridad contra incendios.

En el Anexo II del presente pliego se indican la localización de los centros del Campus y la descripción de los elementos de las instalaciones, a título orientativo.

2. INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO A MANTENER

Se incluyen en este mantenimiento las instalaciones de detección, alarma y extinción de incendios, tales como:

- Sistemas automáticos y manuales de detección y alarma de incendios.
- Hidrantes exteriores, extintores de incendio, bocas de incendio equipadas (BIEs).
- Sistemas de abastecimiento de agua contra incendios, aljibes, grupos de bombeo, incluidos todos los elementos que los componen.
- Columnas secas y sistemas fijos de extinción.
- Sistemas automáticos de detección de monóxido de carbono.
- Sistemas de control de humos y calor
- Sistemas de señalización luminiscente.
- Puertas resistentes al fuego y puertas de evacuación
- Sistemas de ventilación/extracción forzada humos
- Exutorios y compuertas cortafuegos.

Asimismo, se incluyen en este mantenimiento las correspondientes programaciones y planos en el ordenador PC situado en el Centro de Control del Campus. El ordenador cuenta con un programa de Gestión Gráfica (TG Notifier) que incluye los planos de todos los centros.

Las luminarias de emergencia no son objeto de este contrato.

Mantentze kontratuaren xede diren instalazioen barruan hartzen dira horien ekipo eta elementu guztiak, bai eta behar bezala funtzionatzeko edo kontrolatzeko behar den beste edozein ere, barne instalazioon arteko konexioa.

Suteak detektatzeko, alarma jotzeko eta itzaltzeko instalazioak sartzen dira mantentze-lan honetan, hala nola:

3.- MANTENTZE LANAK

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du honako prestazio hauek egiteko:

3.1.- PREBENTZIO MANTENTZE-LANAK.

Mantentze lan prebentiboa instalazioen eta osagaien berrikuspenak egitean datza, programatutako jarduerak gauzatuz, funtzionamendu-parametroak hartuz, neurketak eta egiaztapenak eginez, erregulazioak eginez eta abar, erregulartasunez egiteko programatutako zereginak planifikatzeko sistema baten arabera, instalazioen funtzionamendu eta egoera egokia lortzeko, epe labur, ertain eta luzera.

3.1.1.- MODALITATEAK

3.1.1.1.- MANTENTZE ARRUNTA

Berrikuspen lanak, gutxien dela, honako hauetan ezarritakoarekin bat etorrita egingo dira:

- 13/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen aurka Babesteko Instalazioen Erregelamendua onartzen duena.
- EKTn "suteetarako segurtasunari" buruz eta aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritakoa.
- Nahitaez bete beharreko UNE arauak.

Plegu honen I. eranskinean transkribatzen da gutxieneko mantentze programa.

Baliatu beharreko programazioak eta planoak Campuseko Kontrol Zentroan dagoen ordenagailuan eguneratu eta mantenduko dira zuzentze mantentze bat gertatzen den bakoitzean. Programazio berria eta horren ondoriozko planoak dagokion hiruhilekoan aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsiko zaizkio.

3.1.1.2. Birjartzeak

En las instalaciones objeto del contrato de mantenimiento se entienden incluidos todos sus equipos y elementos, y cualquier otro que fuese necesario para su correcto funcionamiento o control, incluyendo la conexión entre ellos.

Se incluyen en este mantenimiento las instalaciones de detección, alarma y extinción de incendios, tales como:

3.- EL MANTENIMIENTO

La empresa contratista se compromete a realizar las prestaciones que se señalan a continuación:

3.1.- MANTENIMIENTO PREVENTIVO

El mantenimiento preventivo consistirá en la realización de revisiones de las instalaciones y elementos componentes, ejecutando las actividades programadas, toma de parámetros de funcionamiento, mediciones y comprobaciones, regulaciones, etc., conforme a un sistema de planificación de tareas, programadas para ser llevadas a cabo regularmente, con la finalidad de lograr el buen funcionamiento y estado de las instalaciones, a corto, medio y largo plazo.

3.1.1.- MODALIDADES

3.1.1.1.- Mantenimiento ordinario

Las labores de revisión se atendrán, como mínimo, a lo establecido en el:

- Real Decreto 513/2017, de 22 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de Instalaciones de Protección contra Incendios
- Lo establecido en el CTE en lo referente a "Seguridad en caso de incendio" y demás normativa aplicable.
- Normas UNE de obligado cumplimiento

En el Anexo I de este pliego se transcribe el programa mínimo de mantenimiento.

La actualización y el mantenimiento de las correspondientes programaciones y planos en el ordenador PC situado en el Centro de Control del Campus se realizará cada vez que se produzca un correctivo. La nueva programación y planos resultantes se adjuntarán a la documentación que ha de presentarse al trimestre correspondiente.

3.1.1.2. Reposiciones

Berrikuspen lanetan elementu matxuratuak, apurtuak, iraungiak... birjartzeko beharra agerian jartzen denean, enpresa mantentze zuzentzailearen zerbitzuari buruzko puntuan deskribatutako erregimenari lotuko zaio.

Mantentze lanak egiten dituen enpresak eguneratu egin beharko ditu legezko iraungipenaren ondorioz bizitza baliagarria agortuta luketen elementuen birjarpen/ordezkapenen datak.

3.1.1.3.- Nahitaezko aldizkako ikuskapenak

Enpresa mantentzaileak eguneratu beharko du eraikin bakoitzean egin beharreko nahitaezko aldizkako ikuskapenen kronograma.

Era berean, enpresa mantentzaileak campuseko eraikin bakoitzean ikuska daitezkeen instalazio guztien egoerari buruzko txostena egin beharko du, egoera, leudekeen akatsak eta horien zuzentzeko balorazio ekonomikoa adieraziz, gutxienez, unean uneko Nahitaezko Aldizkako Ikuskapena baino urtebete lehenago.

Txostenak dagokion hiruhilekoan aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsiko zaizkio

3.1.1.4.- Legeztatzeak

Mantentzaileak aholkularitza eta, hala balegokio, eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko ditu, arautegian egindako aldaketak direla eta, unean uneko instalazioetan egon litezkeen desadostasunen ondorioz eragindako errekerimenduen inguruan, zeinak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak (aurrerantzean, EJko Industria Sailak) edo pareko erakunderen batek jakinaraziko baititu.

Beharrezkoa balitz eta unibertsitateak legeztatzea onartuz gero, enpresak bete beharko du mantentze zuzentzailearen zerbitzuari buruzko puntuan deskribatutako araubidea.

3.2.- Zuzenketa mantentze-lanak.

Hondatutako edo zaharkitutako elementuak ordezkatzeko edo berriak instalatzeko, aldeko txostena eman beharko du UPV/EHUk izendatutako arduradunak. Lan parteen ikus onespenak ez du inola ere ordeztuko aipatutako baimen hori lortu beharra.

Instalazioak geldiaraztea dakarten azterketak, konponketak edo ordezkapenak

Cuando, en las labores de revisión, se ponga de manifiesto la necesidad de reposición de elementos averiados, rotos, caducados..., la empresa se atendrá al régimen descrito en el punto correspondiente sobre el servicio de mantenimiento correctivo.

La empresa mantenedora vendrá obligada a actualizar las fechas de las reposiciones/sustituciones de los elementos que cuya vida útil se haya agotado por caducidad legal.

3.1.1.3.- Inspecciones Periódicas Obligatorias

La empresa mantenedora vendrá obligada a actualizar el cronograma de las inspecciones periódicas obligatorias a realizar en cada uno de los edificios.

Asimismo, la empresa mantenedora deberá realizar un informe del estado de todas las instalaciones susceptibles de inspección por cada edificio de Campus, indicando estado, posibles deficiencias y valoración económica de su corrección con, al menos, un año de antelación respecto a la Inspección Periódica Obligatoria que corresponda.

Los informes se adjuntarán a la documentación que ha de presentarse al trimestre correspondiente.

3.1.1.4.- Legalizaciones

El mantenedor viene obligado a presentar asesoramiento y, en su caso, oferta económica sobre los requerimientos que puedan surgir por discrepancias que puedan existir en las instalaciones existentes por cambios en la normativa, requerimientos que desde el Departamento de Industria del Gobierno Vasco (en adelante Dpto. de Industria del G.V.) se notifiquen, u otros de similar naturaleza.

Cuando sea necesaria y se apruebe por la universidad la legalización, la empresa se atendrá al régimen descrito en el punto correspondiente sobre el servicio de mantenimiento correctivo.

3.2.- Mantenimiento Correctivo

La sustitución y/o reposición de elementos deteriorados u obsoletos o la instalación de nuevos deberá contar con el informe favorable del responsable dispuesto por la UPV/EHU. El visado de los partes de trabajo no sustituirá, en ningún caso, la necesidad de obtención de la citada autorización.

Las revisiones, reparaciones o sustituciones que impliquen una parada de las instalaciones serán

unibertsitatearekin kasuan kasu adostutako ordutegietan egingo dira. Larunbatetan, igandeetan edo jaiegunetan egiten badira, ez diote kostu gehigarririk eragingo UPV/EHUri.

Konponketetan erabiliko diren elementu suntsikorrak eta ordezko piezak berriak izango dira, homologatuak (CE markarekin), lehengo elementuen ezaugarri berdinak edo hobeak dituztenak, eskainitako prezioekin bat etorrita fakturatuz.

Mantentze lan zuzentzaileak barne hartuko ditu ikastegien abisuak eta honako modalitate hauek izango dira nagusiki:

3.2.1.- MODALITATEAK

3.2.1.1.- Ordezkapenak eta konponketak

- hondatutako eta/edo zaharkitutako elementuak ordezkatzea.
- Zerbitzua eskaintzen hasterakoan UPV/EHUk izendatutako pertsonalak adierazitako matxurak eta gorabeherak konpontzea, edo, prebentziozko mantentze lanen berrikuspenak egin ondoren, enpresako pertsonalak adierazitakoak edo, erakunde eskudunek eraikinetan egindako nahitaezko ikuskapenetan antzemandako akatsak konpontzea.

3.2.1.2.- Legezko iraungipenagatiko ordezkapenak

Mantentze zuzentzailetzat hartuko da legezko iraungitzearen ondorioz ordeztu beharreko elementuak ordeztu edo birjartzea.

3.2.1.3.- PROGRAMAZIO ALDAKETAK

- Mantentze zuzentzailetzat hartuko dira sistemen programazio aldaketak.

3.3.- MANTENTZE LAN EZOHIKOAK

Ezohiko mantentze lanak konponketak egitean dautza, instalazioetan jarraian deskribatutako egoera edo zirkunstantziarik gertatuz gero.

Instalaziooi eragiten dieten ekintza bandalikoek, suteek, ezbeharrek edo ezinbesteko kasuek eragindako kalteak konpontzea.

Hornidura elektrikoa eteteagatik eragindako esku hartzea ekipo zein instalazioetan,

realizadas durante los horarios acordados en cada caso con la universidad. En caso de que sean ejecutadas en sábados, domingos o festivos no supondrán un coste adicional para la UPV/EHU.

Los elementos fungibles y repuestos empleados en las reparaciones serán nuevos, homologados (con marcado CE), de características iguales o superiores a los existentes y se facturarán de acuerdo a los precios ofertados.

El mantenimiento correctivo incluirá los avisos de los Centros y consistirá principalmente en las siguientes modalidades.

3.2.1.- MODALIDADES

3.2.1.1 SUSTITUCIONES Y REPARACIONES

- la sustitución de elementos deteriorados y/u obsoletos.
- la reparación de averías e incidencias manifestadas por el personal de la UPV/EHU que se designe al inicio de la prestación del servicio o, tras las revisiones de mantenimiento preventivo, por el personal de la empresa o en las deficiencias detectadas en las inspecciones obligatorias realizadas en los edificios por organismos autorizados.

3.2.1.2. SUSTITUCIONES POR CADUCIDAD LEGAL

La sustitución o reposición de elementos por caducidad legal tendrá la consideración de mantenimiento correctivo.

3.2.1.3. CAMBIOS DE PROGRAMACIÓN

Los cambios de programación de los sistemas tendrán la consideración de mantenimiento correctivo.

3.3..- MANTENIMIENTO EXTRAORDINARIO

El mantenimiento extraordinario consistirá en la realización de reparaciones en las instalaciones derivadas de situaciones o en las circunstancias que se describen a continuación.

- Reparaciones de desperfectos ocasionados por actos vandálicos, incendios, siniestros o fuerza mayor que afecten a dichas instalaciones
- Intervenciones en equipos o instalaciones ocasionados por cortes en el suministro

unibertsitateak programatutakoak zein ustekabekoak.

- Unibertsitateak eskatuta, mantentze lan arruntetan programatuta ez dauden instalazioak desmuntatzea eta, hala behar izanez gero, muntatzea.

Lan ordutegitik kanpo ezohiko esku hartzeak egiteko eskaerak, 8 orduetatik 20 orduetara bitarteko lan ordutegitzat hartuta, asteburuetan, jaiegunetan edo gauez, eta mantentze lanetan programatuta ez badaude.

Egindako esku hartze bakoitzari dagokion partea aurkeztu beharko da.

3.4.- BERMEA

Matxura dela eta, piezak aldatu behar badira, gutxien dela, hiru urtetako bermea izango dute.

Enpresa kontratistak egindako lan guztiek hamabi hilabeteko bermea izango dute gutxienez, bermetzat hartuko delarik, aldi horretan esku hartu behar izango duten teknikari eta beste edozein profesionalen eskulana estaltzea.

4.- HELBURUAK

Plegu tekniko honen edukia bideratuta dago UPV/EHUk arlo honetan lortu nahi dituen helburuak lortzera, hots:

4.1.- HELBURU OROKORRAK

Indarreko araudiaren eskakizunak betetzea.

Instalazioen funtzionamendua diseinu baldintzetara bikain egokitzea.

Zerbitzuaren segurtasun handiagoa, matxurengatiko geldialdiak ahal bezainbeste murriztuz.

Elementu osagaien batez besteko bizitza ahal bezainbeste luzatzea.

4.2.- KALITATE HELBURUAK

Aurreikusitako kontrol eta eragiketa guztiak egingo dira, bai eta instalazioen funtzionamendu egokia lortzeko beharko liratekeen beste guztiak ere. Bereziki egin beharko dira, unean une indarrean leudekeen eta nahitaez bete beharreko

eléctrico, bien sean programados por la universidad o fortuitos.

- Desmontaje y, en su caso, posterior montaje de instalaciones existentes, a petición de la universidad y que no estén programados en el mantenimiento ordinario.
- Peticiones de intervenciones extraordinarias fuera de horario laboral, considerando horario laboral de 8 horas a 20 horas, en fines de semana, festivos o nocturnos y no estén programadas en el mantenimiento.

Se expedirá el correspondiente parte por cada intervención realizada.

3.4.- GARANTÍA

En el caso de que por avería sea necesaria la sustitución de piezas, éstas quedarán garantizadas durante tres años, como mínimo.

Todos los trabajos realizados por la empresa contratista tendrán una garantía mínima de doce meses, entendiéndose por garantía la cobertura de la mano de obra de cuantos técnicos y otros profesionales tuvieran que intervenir durante el citado periodo.

4.- OBJETIVOS

El contenido de este pliego técnico va dirigido a la consecución de los objetivos perseguidos por la UPV/EHU en esta materia, y que se señalan a continuación:

4.1.- OBJETIVOS GENERALES

Cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente.

Adaptación óptima del funcionamiento de las instalaciones a las condiciones de diseño.

Mayor seguridad del servicio, reduciendo al mínimo las paradas por avería.

Prolongar al máximo posible la vida media de los elementos componentes.

4.2.- OBJETIVOS DE CALIDAD

Se realizarán todos los controles y operaciones previstas, y aquellos otros que fueran necesarios para obtener un correcto funcionamiento de las instalaciones. Muy especialmente, se realizarán aquellos exigidos por las normas de obligado

arauek eskatutakoak.

Ekipoek, makinek eta osagaiek fabrikatzaileak edo instalatzaileak emandako zehaztapenen barruan egon behar dute uneoro, eta aurreikusitako batez besteko bizitza lortu behar dute.

Ekipoen, makinen eta sistemen errendimendu optimoak lortu behar dira, fabrikatzailearen ezaugarri teknikoetan agertzen direnak erreferentziatzat hartuta eta eraikinen beharren arabera.

Eroanbideek, instalazio osagarriek eta interkonexio sistemek uneoro mantenduko dituzte ekipoak, makinak eta instalazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak.

Behar bezala kontserbatuko eta garbituko dira aparatuak, ekipoak, sistemak eta instalazioak, une oro mantendu beharko direlarik pintura egoera egokia, kromatuak, isolamenduak eta abar.

Uneoro bete eta aplikatuko dira ekipoen, makinen eta instalazioen funtzionamenduan, berrikuspenean eta konponketan eskatzen diren segurtasun arau guztiak.

5.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

5.1.- LEGEZKO BETEBEHAR TEKNIKOAK

Kontratu honen xede diren instalazioei aplika dakiekeen indarreko arautegi osoa betetzen dela bermatzea, mantentze edo segurtasun eragiketei dagokienean, plegu honetan jasota egon zein ez.

Kontratua indarrean dagoen bitartean araubidean gertatutako edozein aldaketaren berri ematea unibertsitateari, baldin eta aldaketak instalazioen aldaketa osoa edo partziala badakar.

Unibertsitateari aholkularitza teknikoa eta legala ematea, instalazioen mantentze, konpontze, modernizatze eta segurtasun zerbitzuei buruz eskatzen dituen gai guztietan, bai eta administrazioen eta erakunde ofizialen errekerimenduei dagokienean ere.

Mantentze lan prebentiboko programa bete dela agiri bidez jasota uztea, gutxien dela honako hauek adierazita: egindako eragiketak, egiaztapenen eta proben emaitzak, eta egindako elementu akastunen ordezkapena. Idatzoharrak egunean egin beharko dira, eta ikuskaritza

cumplimiento que estén vigentes en cada momento.

Los equipos, máquinas y componentes han de mantenerse, en todo momento, dentro de las especificaciones dadas por el fabricante o instalador, y alcanzar la vida media prevista.

Deben conseguirse los rendimientos óptimos de equipos, máquinas y sistemas, tomando como referencia los que figuran en las características técnicas del fabricante y en función de las necesidades de los edificios.

Las conducciones, instalaciones auxiliares y sistemas de interconexión mantendrán, en todo momento, las características necesarias para el correcto funcionamiento de equipos, máquinas e instalaciones.

Se realizará una correcta conservación y limpieza de aparatos, equipos, sistemas e instalaciones, manteniendo, en todo momento, su estado adecuado de pintura, cromados, aislamientos, etc.

En todo momento se observarán y aplicarán todas las normas de seguridad exigidas en el funcionamiento, revisión y reparación de equipos, máquinas e instalaciones.

5.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONTRATISTA

5.1.- OBLIGACIONES TÉCNICO-LEGALES

Garantizar el cumplimiento de toda la normativa vigente aplicable a cada una de las instalaciones objeto de este contrato en cuanto a operaciones de mantenimiento o seguridad, estén o no recogidas en este pliego.

Notificar a la universidad cualquier cambio de la normativa durante la vigencia del contrato que pueda implicar la modificación total o parcial de las instalaciones

Asesorar técnica y legalmente a la universidad en cuantas cuestiones demande sobre los servicios de mantenimiento, reparación, modernización y seguridad de las instalaciones, así como ante los requerimientos de las administraciones y organismos oficiales.

Conservar constancia documental del cumplimiento del programa de mantenimiento preventivo, indicando como mínimo: las operaciones efectuadas, el resultado de las verificaciones y pruebas, y la sustitución de elementos defectuosos que se hayan realizado. Las anotaciones deberán llevarse al día y

zerbitzu eskudunen eskura egongo dira.

Unean une eska daitezkeen mantentze liburu guztiak betetzen direla arduratzea, indarrean dagoen arautegiari jarraiki.

Kasuan kasuko administrazio organismoetan aurkeztu beharreko agiriak aurkeztea.

Prozedura honen xede diren instalazioetan egiten diren simulakroetan eta ikuskapen teknikoetan parte hartzea.

Unibertsitateko mantentze lanekin koordinatzea enpresek parte hartzen duten instalazioetan.

estarán a disposición de los servicios de inspección competentes.

Ocuparse del cumplimiento de todos los libros de mantenimiento que sean exigibles en cada momento, de acuerdo con la normativa en vigor.

Entregar la documentación que deba presentarse ante los organismos administrativos correspondientes.

Colaborar, así como estar presente en los simulacros y en las inspecciones técnicas correspondientes que se realicen en las instalaciones objeto de este procedimiento.

Coordinarse con las mantenedoras de la universidad en las instalaciones en que las empresas concurran.

5.2.- DOKUMENTUEN BETEBEHARRAK

Enpresa kontratistak, gutxienez, dokumentazio hau aurkeztu beharko du, unibertsitatearen jabetzakoa izango dena:

5.2.1.- Prestazioaren hasieran:

Kontratua formalizatu ondoren, alderdien artean jarduera protokolo bat zehaztuko da, gora-beheren jakinarazpena eta lan parteen entrega antolatzeko, eta eragiketa zuzentzaileen hasiera ordua eta amaiera ordua jasota gera daitezen.

Enpresa mantentzaileak mantendu beharreko instalazioak aztertuko ditu eta honako dokumentazio hau aurkeztuko du hasierako bileratik hasi eta lehenengo hiruhilekora:

- Inbentario eguneratua dokumentu editagarrian
- Instalazioen plano eguneratuak, dwg formatuan.
- Programazio eguneratuak
- Eraikin bakoitzeko eta Excel formatuan legez iraungitzeagatik berritu edo birjarri beharreko elementuen egutegia
- Aldizkako esku hartze nahitaezkoen (AEN) egutegia.
- Hondakinak kudeatzeko plana.

5.2.2.- Dagokion aldizkakotasunarekin:

Indarreko arautegiarekin bat etorrita, enpresa kontratistak agiri bidez jasoko du mantentze prebentiborako programa bete dela.

5.2.- OBLIGACIONES DOCUMENTALES

La empresa contratista, deberá entregar, como mínimo, la siguiente documentación que será propiedad de la universidad:

5.2.1.- Al inicio de la prestación:

Una vez formalizado el contrato, se definirá entre las partes un protocolo de actuación que organizará la comunicación de incidencias y entrega de partes de trabajo dejando constancia de la hora de comienzo y final de las operaciones correctoras.

La empresa mantenedora reconocerá las instalaciones a mantener y presentará en el plazo del primer trimestre desde la reunión de inicio, la siguiente documentación:

- Inventario actualizado en documento editable
- Planos de instalaciones actualizados en formato dwg
- Programaciones actualizadas
- Calendario de elementos a renovar o reponer por caducidad legal por edificio y en formato Excel
- Calendario de inspecciones periódicas obligatorias (IPO).
- Plan de gestión de residuos

5.2.2.- Con la periodicidad correspondiente:

De acuerdo con la normativa vigente, la empresa contratista conservará constancia documental del cumplimiento del programa de mantenimiento

Mantentze lan prebentibo edo zuzentzaileen lan parteek, gutxienez, honako hauek jasoko dituzte: ikastegia, sarrera eta irteera data eta orduak, berrikusitako elementuak eta egindako eragiketak. Lan parteak posta elektronikoaren bidez bidaliko dizkio unibertsitateak izendatutako kontratu arduradunari.

5.2.3.- Hiru hilez behin:

Enpresa kontratistak txosten bat aurkeztuko du, hiruhileko bakoitzeko lehenengo 15 egun naturalen barruan, aurreko hiruhilekoan Campusean egindako jardueraren inguruan.

- Txosten honen egitura formalak eta edukiak puntu hauek izango dituzte:
- txosten teknikoa, aurreko hiruhilekoan campusean egindako jarduera laburbilduz.
- hiruhileko horretan zehar eguneratutako planoak eta programazioak, balego.
- nahitaezko aldizkako ikuskapenen aurretiazko txostena.
- legeztatzeen premiari buruzko txostena eta, behar izanez gero, aurrekontua.
- Iraungitzeagatik ordeztutako elementuak eguneratzeko edo berritzeko datak eguneratzea, aplikatu beharreko arautegia aintzat hartuta.

5.2.4.- Urtean behin:

Enpresa kontratistak urtero ziurtagiri bat emango du, mantentze arruntari dagokion atalean ezarritako prebentziozko mantentze programa bete duela adieraziz.

Honekin batera, urtean zehar sortutako hondakinen kudeaketa ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3.- PRESTAKUNTZA BETEBEHARRAK

Enpresa kontratistak, urtean behin, prestakuntza eta birziklatze ikastaroak emango dizkie ikastegietako administratzaileei eta atezaindegiko langileei. Ikastaro hauek barne hartuko dute, gutxienez, kontratuaren gauzapenaren hasieran onartutako jarduketa protokoloa eta suteen aurkako telefonoguneen funtzionamendua.

Era berean, enpresak urtean ikastaro bat emango die bereziki campuseko segurtasun zerbitzuko

preventivo.

Los partes de trabajo de mantenimiento preventivo o correctivo contendrán, como mínimo, el centro, la fecha y horas de entrada y salida, los elementos revisados y las operaciones realizadas. Los partes de trabajo serán enviados por e-mail a la persona responsable del contrato por parte de la universidad.

5.2.3.- Trimestralmente:

La empresa contratista, dentro de los primeros 15 días naturales de cada trimestre, presentará un informe respecto de la actividad desarrollada en el Campus durante el trimestre anterior.

- La estructura formal y el contenido de este informe incluirá los siguientes puntos:
- correspondiente informe técnico que resuma la actividad desarrollada en el campus durante el trimestre anterior
- los planos y programaciones actualizados durante ese trimestre, en su caso
- informe previo de inspecciones periódicas obligatorias
- informe de necesidad o no de legalizaciones y presupuesto, en su caso.
- Actualización de las fechas de actualización o reposición de los elementos sustituidos por caducidad según la normativa aplicable.

5.2.4.- Anualmente:

La empresa contratista emitirá un certificado anual en el que se señale que ha cumplido con el programa de mantenimiento preventivo establecido en el apartado correspondiente al mantenimiento ordinario.

Se acompañará con un certificado de la gestión de residuos generados durante el año.

5.3.- OBLIGACIONES FORMATIVAS

La empresa contratista impartirá, una vez al año, cursos de formación y reciclaje, dirigidos a los/las administradores/as y al personal de conserjería de los centros. Estos cursos incluirán, como mínimo, el protocolo de actuación, aprobado al inicio de la ejecución del contrato, y el funcionamiento de las centralitas antiincendios.

Igualmente, impartirá un curso anual, dirigido especialmente al servicio de seguridad del campus, que incluirá

langileei, suteen alarma telefonoguneei buruz, bai kontrol gunetik, bai bertotik.

Mantentze enpresa behartuta dago, halaber, UPV/EHUri eskatutako su itzalgailuen kopurua ematera, benetako sua baliatuta, suteak itzaltzeko prestakuntza ikastaroetan erabili ahal izateko. Kasu horietan, su itzalgailuak kargatzearen zenbatekoa fakturatuko du.

5.4.- BESTELAKO BETEBEHARRAK

Enpresa mantentzaileak LTS (Laguntza Teknikoko Sistema) software bat eduki beharko du, unibertsitateak noiznahi egiazta dezan instalazioen egoera eta mantentze lanak, egin beharreko jarraipena egin ahal izateko.

Enpresak egunean 24 ordutako arreta zerbitzua izan beharko du kontratuaren xede diren matxuretan edo gorabeheretan esku hartzeko.

Mantentze lan zuzentzaileei erantzuteko gehieneko epea 24 ordutakoa izango da, eta premiazkoa izanez gero, berehala erantzungo da (gehienez 45 minutu larrialdi lekura joateko).

Instalazioa hartzen laguntzea, beste enpresa kontratista batek egindako handitze edo hobekuntzen kasuan.

Baldin eta enpresa kontratistak aldi baterako kendu behar badu elementuren bat suteen aurka babesteko instalazioetatik (konpontzeko, birkargatzeko, lehengoratzeko, proba hidraulikoa egiteko, etab.), elementu horren ordez, ezaugarri bereko edo hobeak dituen beste elementu homologatu bat jarri beharko da berehala, eskainitako prezioa errespetatuz.

Enpresa mantentzaileak bi elikadura iturri izan beharko ditu, campusean ohikoenak diren bi zentral ereduekin bat datozenak. Iturriak berehala erabiltzeko moduan egongo dira, beharko balitz; horrela, akatsik izanez gero, 12 ordu baino gutxiagoan konpondu ahal izango dira.

Enpresa arduratuko da kontratua gauzatzean sor daitezkeen hondakinak kudeatzeaz, aplikatu beharreko hondakinen kudeaketari buruzko arautegia aintzat harturik, UPV/EHUrako kostu gehigarririk gabe.

Era berean, hondakinak kudeatzeko plan bat aurkeztu beharko dute edo sortutako hondala gestión, tanto desde el centro de control como in situ, de las centralitas de alarmas de incendios.

La empresa mantenedora, así mismo, está obligada a suministrar a la UPV/EHU el número de extintores que le solicite para usar en cursos de formación en extinción de incendios con fuego real. En dichos casos facturará el importe de la recarga de los extintores.

5.4.- OTRAS OBLIGACIONES

La empresa mantenedora deberá disponer de un software SAT (Sistema de Asistencia Técnica) de forma que la universidad pueda verificar en cualquier momento cuál es el estado de las instalaciones y su mantenimiento, permitiéndole hacer el seguimiento correspondiente.

La empresa deberá contar con un servicio de atención 24 horas al día, para actuaciones en las averías o incidencias objeto del contrato.

El plazo máximo de respuesta para el mantenimiento correctivo será de 24 horas y, en el caso de urgencia, el plazo de respuesta será inmediato (como máximo 45 minutos para acudir al lugar de la emergencia).

Colaborar en la recepción de la instalación en caso de ampliaciones o mejoras realizadas por otra empresa contratista.

En el supuesto de que la empresa contratista deba retirar temporalmente algún elemento de las instalaciones de protección de incendios (para reparación, recarga, retimbrado, prueba hidráulica, etc.) dicho elemento deberá ser inmediatamente sustituido por otro homologado de características iguales o superiores, respetando el precio ofertado.

La empresa mantenedora deberá tener dos fuentes de alimentación que se correspondan con los dos modelos de central más comunes en el Campus. Las fuentes estarán disponibles para su utilización inmediata si fuera necesario, de forma que en caso de fallo pueda ser reparada en menos de 12 horas.

La empresa será responsable de la gestión de los residuos que puedan generarse en la ejecución del contrato de acuerdo con la normativa de gestión de residuos que sea de aplicación, sin coste adicional para la UPV/EHU.

Asimismo, deberán presentar un Plan de Gestión de residuos o aportar informe del volumen y cantidades

kinen bolumenari eta kopuruei buruzko txostena aurkeztu, sei hilean behin edo urtean behin.

Urtero aurkeztu beharko da hondakinen kudeaketaren ziurtagiria.

6.- UPV/EHUREN ETA ENPRESA KONTRATISTAREN ARTEKO HARREMANA

UPV/EHUren eta kontratistaren arteko harremanak alderdi bakoitzak izendatutako solaskide baten bidez gauzatuko dira.

Enpresa mantentzaileak solaskidea aldatzen badu, berehala jakinaraziko zaio unibertsitateari.

Berdin jokatuko da instalazioen mantentze lanetarako izendatutako teknikarietan aldaketaren bat badago.

Neurri orokor gisa, UPV/EHUko edozein eraikinetara sartu aurretik, teknikariak eta/edo langileak atezaintzan identifikatuko dira.

Hasierako bilera bat egingo da UPV/EHUko ordezkarien eta esleipendunaren artean.

Lanak egiten diren bitartean, bilerak egingo dira urtean behin gutxienez, lanaren egoera eta onartutako epeak betetzen diren egiaztatzeko. Nolanahi ere, enpresa kontratistak izendatutako arduradunari UPV/EHUk dei egin ahal izango dio zerbitzuak behar bezala garatzeko egoki iritzitako bilera guztietara. Bileretan kasuan kasuko aktak idatziko dira.

Enpresa mantentzaileak unibertsitateak emandako edozein informazioren konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

7.- KONTRATISTARI ZERBITZUA EMATEN LAGUNTZEA

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Campuseko ikastegiek bertako instalazioetara sartzeko aukera emango diote enpresa kontratistari, lanak egingo baditu, UPV/EHUko arduradunek aldez aurretik jakinarazitako datetan, aurkeztu zaizkion plangintzan adierazi bezala.

UPV/EHUk, halakorik izanez gero, ikastegietako oinplanoak emango dizkio kontratistari, dwg formatuan.

de residuos generados, con carácter semestral o anual.

Anualmente deberá presentarse la certificación de la gestión de los residuos.

6.- RELACIONES ENTRE LA UPV/EHU Y LA EMPRESA CONTRATISTA

Las relaciones entre la UPV/EHU y el contratista se llevarán a cabo por medio de una persona interlocutora nombrada por cada una de las partes.

En el caso de que la persona interlocutora por parte de la empresa mantenedora cambie, se informará de forma inmediata a la universidad.

Se procederá de igual forma en el caso de que haya algún cambio en los técnicos designados para el mantenimiento de las instalaciones

Como medida general, previamente al acceso de cualquier edificio de la UPV/EHU los técnicos y/o operarios se identificarán en la conserjería.

Se mantendrá una reunión inicial entre los representantes de la UPV/EHU y la adjudicataria.

Durante la ejecución de los trabajos, y con una periodicidad mínima anual, se mantendrán reuniones para contrastar el estado del trabajo y el cumplimiento de los plazos aprobados. De cualquier modo, el responsable designado por la empresa contratista podrá ser convocado por la UPV/EHU a cuantas reuniones estime pertinente para el buen desarrollo de los servicios. En las reuniones se redactarán las correspondientes actas.

La empresa mantenedora se compromete a respetar la confidencialidad de cualquier información facilitada por la universidad.

7.- APOYO AL CONTRATISTA EN LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO

Durante la vigencia del contrato, los centros del Campus facilitarán a la empresa contratista el acceso a sus instalaciones para la realización de los trabajos, previa notificación por parte de los responsables de la UPV/EHU de las fechas señaladas en el planning presentado a la misma.

La UPV/EHU proporcionará a la contratista, siempre que se disponga de ellos, planos de planta en formato dwg de los centros.

8.- UPV/EHUREN ERRESERBAK

UPV/EHUk bere gordetzen du argibide teknikoak eskatzeko, ikastegietarako bisita gehigarriak deitzeko eta enpresa kontratistak bidalitako dokumentazioa berrikusi ondoren aldaketak eskatzeko eskubidea.

Mantentze lanak egiten dituen enpresa behartuta dago mantenimendu mota guztietako aurrekontuak aurkeztera, baina unibertsitatea ez dago behartuta mantentzailearekin kontratatzera aurrekontuan jasotako esku hartzearen unitate funtzional tekniko eta ekonomikoak edo kontratu ezintasunak. Unibertsitateak lehia askeaz baliatzeko eskubidea izango du kasu horietarako.

9.- ERANSKINAK

I. Eranskina.

Suteen aurka babesteko instalazioen erregelamenduaren 2. gehigarriaren I., II. eta III. taulak.

UNE 23740 1 araua. Suebakiko ateak instalatzea, erabiltzea eta mantentzea.

II. Eranskina. Gauzatze lekuak eta instalazioak.

Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

8.- RESERVAS DE LA UPV/EHU

La UPV/EHU se reserva el derecho de solicitar aclaraciones de tipo técnico, convocar visitas adicionales a los centros, así como solicitar modificaciones tras la revisión de la documentación remitida por la empresa contratista.

Aunque la empresa mantenedora está obligada a presentar presupuestos en los diferentes tipos de mantenimientos, la universidad no está obligada a su contratación con la mantenedora por la unidad funcional técnica y económica de la intervención presupuestada o imposibilidad contractual. La universidad se reserva el derecho de convocar la libre concurrencia para estos casos.

9.- ANEXOS

Anexo I.

Tablas I, II y III del apéndice 2 del Reglamento de Instalaciones de Protección contra Incendios.

Norma UNE 23740-1 Instalación, uso y mantenimiento de las puertas cortafuego.

Anexo II. Lugares e instalaciones de ejecución.

En Vitoria-Gasteiz, a fecha de firma electrónica.

Leticia Dieguez Aguirre
Arquitecta del Servicio de Arquitectura y Obras en el Campus de Álava
En su ausencia

Maria Jesus Artetxe Azurmendi
Arabako Campuseko Zerbitzu Burua
Fecha: 2025.10.03 13:18:59 +02'00'

I. ERANSKINA

Suteen aurka babesteko instalazioen erregelamenduaren 2. gehigarriaren I., II. eta III. taulak.

I. taula. Suteen aurkako babes aktiboko sistemak hiru hilean behin eta sei hilean behin mantentzeko programa

Mantentze enpresak egin beharreko eragiketak

Ekipo edo sistema	Zenbatean behin?	
	3 hilean behina	Sei hilean behin
Suteak detektatu eta alarma jotzeko sistemak. Baldintza orokorrak.	Aldez aurreko urratsa: neurriak berrikustea eta/edo ezartzea, ikuskatze lanetan nahi ez diren ekintzak edo maniobrak saihesteko. Egindako azken berrikuspenaz geroztik sistemaren edozein osagaitan aldaketarik egin den egiaztatzea eta hura dokumentatzea. Instalazioen funtzionamendua egiaztatzea (hornidura iturri bakoitzarekin). Pilotuak, fusibleak eta bestelako elementu akastunak ordeztea. Alarma, matxura, deskonexio eta informazioko argi indikazioak berrikustea zentralean. Metagailuak mantentzea (bornak garbitzea, ur destilatua birjartzea, etab.). Zentralizatzeko eta alarma transmititzeko ekipoak egiaztatzea.	
Suteak detektatu eta alarma jotzeko sistemak. Elikadura iturriak.	Bateria sistemak berrikustea: Sistemaren kommutazio proba sare akatsean, sistemaren funtzionamendua baterietan, matxura detektatzea eta modu normalean lehengoratzea.	
Suteak detektatu eta alarma jotzeko sistemak. Alarma eskuz aktibatzeko gailuak.	Eskuzko alarma sakagailuen seinaleztapena egiaztatzea.	Sakagailuen kokapena, identifikazioa, ikuspena eta irisgarritasuna egiaztatzea. Sakagailuen egoera egiaztatzea (finkatzea, garbitzea, korrosioa, kanpoko itxura).
Suteak detektatu eta alarma jotzeko sistemak. Alarma transmititzeko gailuak.	Argi abisagailuen eta ohartarazle akustikoen funtzionamendua egiaztatzea. Aplikagarria bada, megafonia sistemaren funtzionamendua egiaztatu. Aplikagarria bada, egiaztatu audioa ulergarria den sua itzaltzeko gune bakoitzean.	
Su itzalgailuak.	Honako egiaztapen hauek egin: - Su itzalgailuak dagokien lekuan daudela eta ez dutela itxurazko kalte itxurarik. - Babestu beharreko arriskuaren arabera egokiak direla. - Sarbidea buxatuta ez dutela, ikusteko moduan daudela edo seinaleztatuta daudela eta erabiltzeko jarraibideak aurrealdean dituztela. - Erabiltzeko jarraibideak irakurtzeko modukoak direla. - Presio adierazlea eragiketa eremuan dagoela. - Metalezko zatiak (pitak, balbula, mahuka...) egoera onean daudela. - Erabilera adierazten duten zigiluak edo tapoiak ez direla falta eta ez daudela apurtuta. - Guztiz edo partzialki deskargatu ez direnak. Baldintza hori betetzat joko da, halaber, UNE 23120 arauaren «Hiruhileko Mantentze Programa» izenekoan adierazitako eragiketak egiten badira. Su itzalgailuen seinaleztapena egiaztatzea.	
Suteetako ur-hargune hornituak (SUH)	SUHen seinaleztapena egiaztatzea.	
Hidranteak.	Ingururako irisgarritasuna eta lurpeko hidranteen seinaleztapena egiaztatzea. Begiz ikuskatzea, eta multzoaren estankotasuna egiaztatzea. Irteeren estalkiak kendu, hariak koipeztatu eta errakoreen junturen egoera egiaztatu. Hidranteen seinaleztapena egiaztatzea.	Eragiteko azkoina koipeztatzea edo bere olio ganbera betetzea. Hidrantea ireki eta itxi, balbula nagusiaren eta drainatze sistemaren funtzionamendu egokia egiaztatuta.

